



Andre Mari, 17
20200 BEASAIN

Tel.: 943.88.15.81



Beasaingo udala

Beasainen, bi mila eta hemeretziko martxoaren hogeita zazpian

BILDURIK

Alde batetik, **BEASAINGO UDALA**, Aitor Aldasoro Iturbe Alkate-lehendakari jaunak ordezkaturik.

Bestetik, **ANDRE MARIA ZERURATUAREN PARROKIA** 72.426.696-H zenbakiko NA duen Javier Txurruka Gonzalez jaunak ordezkaturik.

AURREKINAK

Andre Maria Zeruratuaren parrokiak urteak daramatza urtean zehar udalak antolatu ohi dituen hainbat musika jardueretarako azpiegitura utziz.

2019an ere, Igartza Musika programazioaren barruan eta Musika Eskolak antolatuta, Andre maria Zeruratuaren elizan ospatuko diren hainbat kontzertu programatu dira.

Beasaingo elizak bestalde badu 1906 urtean jarritako *Merklin* izeneko organoa. Organo hau, Beasaingo herriaren interes bereziko ondarea izateaz gain hainbat ekitalditan ere erabiliko da.

Hitzarmen honen helburua Andre Maria Zeruratuaren parrokiari udalari eliza erabiltzen uzteagatik eta organoaren babesa, zaintza eta zabalkundea ahalbidetzeko udalak ordaindu behar diona arautzea da.

KLAUSULAK

LEHENA.- 2019an udalak antolatutako ekitaldiei aurre egiteko Andre Maria Zeruratuaren parrokiak ondorengo konpromisoak hartzen ditu bere gain:

- 1) Kontzertuak baldintza eroso eta egokian gauzatu ahal izateko elizaren garbiketaz, berogailua jartzeaz, argiteriaz eta zaintzaz arduratuko da, entseguak barne.
- 2) Organoaren mantentzeaz arduratuko da, mantentze-lanetarako aditu bat kontratatu eta urtean zehar beharrezkoak diren mantentze eta afinatze lanak egingo ditu. Mantenu eta afinazioaren esku-hartze bakoitzaren aurrekontua 363,00 €-koa da (%21eko BEZa barne). Printzipioz urtean behin egitearekin nahikoa litzateke.





Andre Mari, 17
20200 BEASAIN

Tel.: 943.88.15.81



Beasaingo udala

- 3) Aipatutako organoa, ohiko mantenuaz gain, **garbiketa, pipiaren aurkako tratamendua eta egokitzapenaren** premia larrian dago. Lan hori 20-25 urtean behin egin behar izaten da eta 2019 urtean egitea aurreikusi da. **Aurrekontua, 4.588,32 €koa da (%21eko BEZa barne)**. Andre Maria Zeruratuaren parrokiak "finantzaketa kolektiboa" (*crowdfunding*) deritzan ekimena abian jarriko du, beasaindar guztien artean, organoaren egokitzapena finantzatzeko. Modu berezi horretan biltzen den dirua organoaren egokitzapena kostatzen dena baino altuagoa izango balitz, parrokiak bere konpromisoa hartzen du diru guzti hori datozen urteetan organoaren mantentze zuzentzeko, agortu arte.

BIGARRENA.- Beasaingo Udalak zerbitzu horien truke Andre Maria Zeruratuaren parrokiari diru hau emango dio:

- 1) Garbiketa, berogailu eta bestelakoez, **400 € kontzertu bakoitzeko**.
- 2) Organoaren mantenu eta afinazioa lanei dagokionean, **363,00 € esku-hartze bakoitzeko** (%21eko BEZa barne). Urtean esku-hartze bakar bat aurreikusten da.
- 3) **Organoaren egokitzapen lanari** dagokionean, "finantzaketa kolektiboa" (*crowdfunding*) deritzan ekimenak finantzatzen ez duen zatia honela ordainduko da: %50a emango du udalak eta gainerakoa parrokiak.

HIRUGARRENA.- 2019. urteari dagokion ordainketa, urtean zehar aurreikusitako jarduera guztiak burututakoan egingo da, horretarako udalari faktura aurkeztuko zaio. Horrekin batera, organoaren mantentze-lanei eta egokitzapen-lanei dagokien fakturak aurkeztu dira.

LAUGARRENA.- Hitzarmen hau urtero berrikusiko da kopuruari dagokionean nahiz parrokiak eskaintzen dituen zerbitzuei dagokionean, baina beti ere, Udalaren beharretara egokituz.

Eta esandako guztiarekin adostasun frogatzat, bilduek dokumentu hau bikoizturik sinatu dute, goiburuan aipatutako data eta lekuan.